

Espetxeko testuinguruan jaio nahiz hezi diren haurren atxikimenduaren garapena

Naia Tolosa Simón¹, Klara Smith-Etxeberria²
²Psikologia, ²Psikologia Fakultateko irakaslea (EHU)

Presondegian bizi diren eta haiena ez den zigor bat jasaten ari diren haurren kopurua ez da txikia, eta giltzaperaturik bizitzeak haien garapen orokorrean eragin ditzakeen askotariko ondorioetatik haratago, artikuluko honek espetxearen testuinguruak haur horien atxikimenduaren garapenean duen eragina aztertzea du helburu. Zehazki, bi auresale identifikatu dira presondegian dauden haurren atxikimendu ziuraren garapenaren arrisku-faktore gisa: amaren buru-osasuna eta 3 urte ondoren amaren eta haurraren artean gertatzen den banaketa. Izan ere, espetxeraturik dagoen amak baliabide psikologiko murrizak izateak haurraren atxikimendu ziurrean negatiboki eragiten duela aurkitu da, baita haurra derrigor espetxetik ateratzeak eta amarengandik banantzearen praktikak ere. Hala, atxikimendu ziur bat garatzea bizi-kalitate osasungarri baterako funtsezkoa delarik, beharrezkoa ikusten da haurraren atxikimenduaren garapen ziurrerako eta haren ongizate osorako espetxe-politika egokiak sustatzea.

GAKO-HITZAK: Espetxea · Atxikimendua · Garapena · Amen moduluak · Kanpo-unitateak.

The development of attachment in children born and raised in prison settings

The number of children who live in prison is not small. Beyond the multiple consequences that living locked up can leave on their general development, this article aims to analyze the influence of the prison context on the development of attachment of these children. Specifically, two predictors have been identified as risk factors for the attachment development of children in prison: the mother's mental health and the separation between the mother and the child after the age of 3 years. Indeed, both the incarcerated mother's reduced psychological resources and the child's forced release from prison along with the consequent separation from the mother have been found to negatively influence the child's attachment security. Thus, since the development of a secure attachment is essential for a healthy quality of life, it is necessary to promote appropriate prison policies for both the child's secure attachment development and full well-being.

KEY WORDS: Prison · Attachment · Development · Maternal modules · External modules.

1. Sarrera

Haurren eskubideetan zein ongizatean maiz pentsatzen den arren, egoera arrotz bat bizi duen talde sozial bat alde batera utzi izan da: beren amarekin espetxean bizi diren haurrak. Haiena ez den kondena bat betetzen ari diren umeak dira horiek, eta ez dira gutxi. Izan ere, Espainia espetxeratu gehien duen Europar Batasuneko herrialdea da, eta horietatik emakumeak gutxiengoa diren arren (% 8 inguru), ikerketa batzuen arabera 2006an preso ziren emakumeen % 85 amak ziren, zifra horrek haiekin giltzaperaturik dauden haurrak ere barne biltzen dituelarik (Arola, 2010, Fernández-ek aipatua, 2017). Presondegian bizi diren haurren datu zehatzei dagokienez, Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak 2022an eskaini zuen kartzelai buruzko txosten orokorraren arabera (Secretaria General de Instituciones Penitenciarias, 2022), urte horretan haien amarekin preso zeuden haurren batezbestekoa 50,81ekoa zen (ikus 1. taula).

1. taula. 2022an espetxeraturik zeuden adingabeen batezbestekoa, heziketa jaso zuten espetxeraturiko adingabeen batezbestekoa eta amen batezbestekoa (Secretaria General de Instituciones Penitenciarias, 2022).

Kokapena	Espetxeraturik dauden adingabeen batezbestekoa	Heziketa jaso duten espetxeraturiko adingabeen batezbestekoa	Amen batezbestekoa
Amen modulua			
– Madrid VI	12,08	6	11,41
Kanpo-unitatea			
– CIS Mallorca	2,66	2	2,16
– CIS Madrid	2,75	3	2,75
– CIS Sevilla	7,50	9	6,50
Alacant-eko espetxea	13,16	19	12,58
Espetxe mistoa	9,25	6	8,16
– Madrid VI			
Mendeko unitatea	3,41	3,5	2,91
– Madrid VI			
Totala	50,81	48,5	46,47

Hala ere, hainbat autorek datu zehatzik eskuratu ezin dela adierazten dute (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017; Fernández, 2017; Zuil eta Libório, 2016), eta aurreko urteetako batezbestekoak aztertuz, ikusgarria da urteek atzera egin ahala espetxean bizi diren haurren batezbestekoa era esponentzial nabarmenean jaisten doala, bai eta haurren bizikidetzarako bideraturiko egitura gehiago zeudela ere (Secretaria General de Instituciones Penitenciarias, 2010, 2021, 2022) (ikus 2. taula).

**2. taula. 2021, 2020 eta 2010ean espetxeraturik zeuden
adingabeen batezbestekoa (Secretaria General de Instituciones
Penitenciarias, 2010, 2021, 2022).**

Kokapena	2021	2020	2010
Amen modulua	-	10,58	5
– Alcalá de Guadaira			
– La Moraleja	-	-	7
– Madrid V	-	-	28
– Madrid VI	19,05	22,96	42
– Teixeira	-	-	16
– Valencia preventivo	-	10,38	16
Kanpo-unitatea	2,25	3,96	24
– CIS Mallorca			
– CIS Sevilla	10,16		23
– CIS Madrid	5		-
Alacant-eko espetxea	11,88	4,42	-
Espetxe mistoa	9,05	14,71	17
– Madrid VI			
Mendeko unitatea	-	-	5
– Alboloto (Romper cadenas)			
– Alcalá de Guadaira (NF)	-	-	4
– Madrid V (Nuevo Futuro)	-	0,25	6
– Madrid VI (Horizontes Abiertos)	4,91	4,38	10
– Tenerife (Cruz Roja)	-	-	2
– Valencia CIS Rocafort (NF)	-	-	5
Emakume saila	-	-	3
– Las Palmas			
– Tenerife	-	-	1
– Madrid I	-	0,13	-
Totala	50,81	48,5	214

Espainiako legeriak —Espetxeen Lege Organiko Orokorren (1995) 38. artikuluan— amek beren seme-alabek hiru urte bete arte haiekin geratzeko eskubidea dutela jasotzen du (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017). Izan ere, Zuñil eta Libório-k (2016) diote haur bat kartzelan egoteko irizpide bakarra adingabeak 3 urte baino gutxiago edukitzea dela, eta, beraz, banako batek bere lehen urteak espetxean igaro ditzakeela bai bertan jaiotzen delako, edo bai amak harekin giltzapetzea eskatzen duelako. Hala, 80ko hamarkadaren amaieran, haurraren bizikidetzarako hainbat egitura sortu ziren: mendeko unitateak, familia-moduluak, espetxe barruko amen moduluak eta amen kanpo-unitateak (Mata, 2018).

Mendeko unitateak gobernuz kanpoko erakundeen (GKE) tutoretzapean dauden etxebizitzak dira, zeinak 3. graduan eta erdi-askatasunean dauden amentzat dauden bideraturik (Mata, 2018). Familia-moduluak, berriz, gurasoak eta haurra elkarbizitzan egon daitezkeen modulu bereziak dira, familia ez desegituratzeko asmoz sortuak.

Artikulu honetan interes handiena, ordea, amen moduluen eta kanpo-unitateen artean dauden ezberdintasun anitzek dute. Izan ere, kontuan hartuz amen moduluak kartzelen barnean kokatzen diren modulu zehatzak direla eta kanpo-unitateak, berriz, espetxeetatik banandurik dauden eraikin isolatuak, haietan izaten den bizitza oso ezberdina da (Zuil eta Libório, 2016). Kanpo-unitateak haurren zein amen premia nahiz eskubideei erantzuteko sortu ziren establezimenduak dira; espetxearen seinale izan daitezkeen ezaugarri gehienak ezabatu egiten dituzte haurrek ikus ez ditzaten, bertako langileek ez dute uniformerik, ez da megafoniarik erabiltzen, eta terminologia ere zaindu egiten dute (Guerra Escudero, 2019; Zuil eta Libório, 2016). Amen moduluek, berriz, espetxe barruan daudelarik, bertako arkitektura, egunerokotasuna zein testuingurua mantentzen dute. Are gehiago, espetxe femeninoetan edo gizonak nahiz emakumeak batera dauden espetxe mistoetan egon daitezke (Fernández, 2017).

Beraz, kanpo-unitateak haur baten bizikidetzarako egokituago daude, baina gaur egun, ordea, Espainia osoan soilik 3 daude martxan (Guerra Escudero, 2019; Mata, 2018; Zuil eta Libório, 2016): Madrilgo «Jaime Garralda» Amen Kanpo Unitatea, Sevillako Amen Kanpo Unitatea (Andaluzia) eta Palma Mallorcako Amen Kanpo Unitatea (Balearrak). Euskal Herrian, beraz, bat ere ez dago. Gainera, hainbat autorek haur gehienak espetxe barruko amen moduluetan daudela kritikatzek dute (Fernández, 2017; Zuil eta Libório, 2016), eta halaber, 2022ko barne-ministerioaren datu ofizialek hori baieztatzen dute (ikus Taula 1). Gainera, amen moduluen baliabidea ere nahiko murrizta da, gaur egun guztira amentzako 6 modulu soilik baitaude Madrilgo Erkidegoan, Valentziako Erkidegoan, Balearretan, Andaluzian eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

Zuil eta Libório-ren (2016) arabera, espetxe-sistemaren bitartekoek ezberdin eragiten dute haurren garapenean, eta hain zuzen, amen moduluak ondorio negatibo handienak izaten dituzten egiturak direla aldarrikatzen dute. Beraz, haur gehienak modulu horietan bizi direla kontuan harturik, haur-profil horien atxikimenduaren garapena aztertzea garrantzi handiko gaia da. Izan ere, atxikimendu ziurra banakoaren garapen nahiz bizi-kalitate osasungarri baten oinarria da (Howe eta besteak, 1999; Kanaboshi eta besteak, 2017; Byrne eta besteak, 2010), eta atxikimenduaren garapena baldintzatzen duten hainbat aurrealeren artean, espetxearen testuingurua inguruneke arrisku-faktore bat da. Gainera, haren amarekin batera preso bizi diren haurren profil hori alde batera utzi ohi izan denez, haiei buruz dagoen informazioa oso eskasa da, eta hori haien atxikimenduaren garapena aztertzea premiazko egiten duen beste ezaugarri bat da.

1.1. Helburua

Gauzak horrela, artikulu honen helburu nagusia da espetxean jaio nahiz hezi diren haurren atxikimenduaren garapenaren gaineko azterketa teoriko bat egitea,

haien ongizate orokorra ardatz izanda. Hain zuzen, haien amarekin garatzen duten atxikimendu-estiloari buruzko informazioa bilduko da, atxikimendu ez-ziur bat garatzea eragin dezaketen arrisku-faktore posibleetatik salbu daudela aztertu ahal izateko eta, hala ez bada, haur espetxeratuen ongizaterako neurriak hartzearen premia agerian uzteko. Horretarako, preso dauden haurren atxikimenduaren garapenean sakondu aurretik, amen moduluen testuingurua ondo deskribatzea nahiz zehaztea komeni da, baita haurraren garapen orokorrean izan ditzakeen ondorio posibleak aztertzea ere. Beraz, hurrengo atala horretan zentratuko da. Ondoren, testuinguru horrek berak garapen orokorrean ez ezik, atxikimenduaren garapenean ere zer-nolako eragina duen ikertuko da.

2. Espetxe barruko amen moduluen testuingurua eta haurraren garapen orokorra

Aipatu bezala, espetxe barruko amen moduluak haurrengan eragin negatibo handiena izaten duten bitartekoak dira (Zuil eta Libório, 2016). Beraz, bertako testuingurua adingabearen garapen egokirako arrisku-faktorea denez, atal honetan testuinguru horren ezaugarriak deskribatzen dira, haurraren garapenak testuinguru horretan jasandako ondorioak zehaztu ahal izateko.

2.1. Espetxeen barruko amen moduluen testuingurua haurren garapenerako arrisku-faktore gisa

Espetxeek, oro har —emakumeen moduluak barne—, ez dute generoaren ikuspegia kontuan hartzen, haien diseinua gizonengana zuzentzen baita (Fernández, 2017; Guerra Escudero, 2019; Torrado, 2016). Fernandez-en (2017) aburuz, horrek preso dauden emakumeei eragiteaz gain, kartzelaren testuinguruan jaio nahiz hazten diren haurren garapenak ere nolabaiteko kaltea jasan dezake. Izan ere, gaur egun soilik 3 kanpo-unitate daude eta espetxeetan dauden amen premiei buruzko politika apalek baldintza kaskarrak nahiz baliabide eskasak dakarzkiete bai amei baita haien hurrei ere (Fernández, 2017). Horren adibide argiak dira, esaterako, haurtzaintzari buruzko material eskasa eta arreta ginekologiko urria, zeinek fetuaren babesa mehatxatzen duten eta amaren nahiz haurraren osasunerako eskubidea zalantzan jartzen duten (Fernández, 2017).

Hala, haur baten inguruneak haren garapen kognitibo, sozial zein jokabidezkoa baldintzatzen duela kontuan harturik, hainbat ikerketak aldarrikatu dute espetxeetako testuingurua desagokia dela haurrarentzat (adib. Mulligan, 2019). Kartzelen egiturari dagokionez, agerikoa da espetxeak ez direla adingabearen beharretara egokitzen (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017). Legeak Espetxeen Erregelamenduaren 17.5 artikuluan eskatzen duenean oinarriturik, amen moduluak gainerako sailetatik banandurik daude arkitektonikoki; paretak haurrarentzat daude dekoraturik eta zeldak gela gisa izendatzen dira egoera normalizatzeko asmoz (Fernández, 2017). Haatik, ez dago egokitasun nahikorik adingabe baten bizikidetzarako. Esate baterako, ateak automatikoki ixtearen sistemak ez ditu 0-3 urte bitarteko haur baten mugimenduak antzematen, sabai altuek nahiz moduluaren beraren arkitekturak oihartzun handia egotea eta edozein zarata oso altu entzutea eragiten dute, eta bertan dauden

emakume guztien hizketaldien murmurioak zein megafonia bitarteko etengabeko deiek jaioberri batek behar duen lasaitasuna eragozten dute (Fernández, 2017). Gainera, espazioaren problematikarekin jarraituz, zeldaren tamaina txikiaz eta askatasun-gabeziaren seinale diren elementu nabarmenez gain (krisketak dituzten ate handiak, burdin sareak leihoetan, arantzazko alanbre-hesiak eta abar), ez dira haur batek behar dituen segurtasun-neurriak hartzen. Esaterako, eskailera batzuetara erraztasun handiz gerturatu daiteke, edota arriskutsuak diren objektuak —hala nola garbiketarako produktuak— ezin dira behar bezala gorde, bertako altzariek ez baitute aterik.

Espetxe-testuinguruaren desegokitasunari buruzko ikerketa-ildoarekin jarraituz, tenperatura ez dago ondo erregulatutik, neguan hotz handia egiten baitu eta ur beroa eten ohi izaten baita (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017; Fernández, 2017). Halaber, inguruneko baldintzak ez dira higiene nahiz osasunarentzat egokienak, gauetan aireztapen nahiz argiztapen eskasak baitaude eta kartzeletako testuinguruan, besteak beste, ohikoak izaten diren hartutako immunoeskasiaren sindromea (HIESA) zein hepatitis B gaixotasunak adingabeen eraginpean geratzen baitira (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017).

Bestetik, muga nabarmenak daude bai mugikortasunari bai jostailuen eskuragarritasunari dagokienez (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017; Eloff eta Moen, 2003). Azken finean, espetxea eguneroko elementu ugari ez dauden espazio bat da, hots, errealitatetik aldentzen den inguru berezi bat da, eta, beraz, ez dago baliabide material nahiz esploraziorako aukera askorik. Are gehiago, jostailuak nahiz estimulazioa eskasak izateaz gain, irudimenezko jolasaren falta izan ohi dute, zeina haurren garapenerako mekanismo integratzaile bat den (Eloff eta Moen, 2003). Gainera, normaltasunetik urruti geratzen den espetxeko testuinguru horretan haien artean kaltegarriak diren egoera batzuk ere bizitzen dituzte, hala nola etsaitasuneko inguruneak, gainerako presoek areriozko jarrerak (Mulligan, 2019), eta kartzeletako langileek haien artean aurrean etengabe egiten dizkieten miaketak (Fernández, 2017).

Jarraitzeko, bertako lorategietara ateratzeko zailtasun handiak izaten dituztenez, eguzki-izpiak era oso mugatuan jasotzen dituzte (Eloff eta Moen, 2003; Mulligan, 2019). Gainera, bisitak kristal batek bereizirik espazio txiki batean egiteak eta familia arteko aurrez aurreko bisitak garbitasun kaskarreko gela ez aireztatu batean izateak haurra are giltzaperatuago sentiarazten dute (Fernández, 2017). Hori gutxi balitz bezala, haien elikadura ere desegokitzat har daiteke, 18 hilabete arte purea besterik ez baitute jaten eta, horren ondoren, helduek jasotzen duten menu berbera, aurrez prestatutako eta kalitate baxuko elikagaietan oinarritutikoa (Fernández, 2017). Bukatzeko, espetxeetan dauden ikastolak onuragarriak izan arren, zenbait muga dauzkate; esate baterako, behar bereziak dituzten adingabeek ezin dute estimulazio kognitibo edota motorrean oinarritutako tratamendurik jaso (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017).

Baldintza horiek guztiek familia-ingurunerik ez duten haurren babeserako eskubidea hausten dute, haurra bere amarekin egon arren normaltasunetik at dagoen eremu batean bizi baita (Fernández, 2017). Izan ere, espetxeko bizikidetzako

arlo guztiak bezala, amaren rola ere bertako langileen erabaki, jarraibide zein arauen bitartez daude monitorizaturik, eta haiek erabakitzen dute haurra noiz irten daitekeen, zer jan dezaketen edota noiz bisita ditzaketen haien senideek (Eloff eta Moen, 2003).

2.2. Espetxeetako testuinguruan bizi diren haurren garapena

Kartzelak kanpo-munduarengandik isolaturik dauden ingurune mugatu zein pobretuak direnez, espetxeetako unitateak ez daude haur txiki bat behar bezala bizi ahal izateko egokiturik, eta horrek haurraren garapenean negatiboki eragiten du (Eloff eta Moen, 2003). Izan ere, fonoaudiologoek, pediatrek edota psikopedagogoez hainbat motatako gaitz aipatzen dituzte, hala nola arnas arazoak, heldze-prozesuaren atzerapenak nahiz zentzumenen galera, baita sozializazio-prozesuetan eragiten duten jarrera disfuntzionalak ere (Abastoflor, 2021). Halaber, Daniel de la Rosak —Mugarik Gabe GKEko koordinatzailea— Aranjuez-eko kartzelan bizi diren haurrekin egiten du lan, eta haien garapena mantsoagoa dela aitortzen du, baita haien ikaskuntzaren eboluzioa berantiarraigoa eta haien ikusmeneko nahiz erreakzionatzeko gaitasuna txikiagoa ere (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017).

Hala ere, beste autore batzuek diote garapen orokorrari dagokionez ezberdintasun gutxi daudela kartzelan bizi diren eta bizi ez diren haurren artean, eta batik bat bi alderditan aurkitu dute garapenaren pixkanakako murriztapen bat (Black, 1992; Lejarraga eta besteak, 2011): mintzairan eta kognizioan. Izan ere, Lejarraga eta besteak (2011) burutu zuten zeharkako ikerketa batean hainbat herrialdeetako haurrei PRUNAPE («Prueba Nacional de Evaluación Psicopedagógica», haur txikiaren garapena aztertzen duen testa) eta Cat Clams (mintzaira zein kognizioaren garapenaren koizientea eskaintzen duen proba diagnostikoa) probak egin zizkieten, eta lehenengo testaren emaitzek garapenean atzerapenen bat espetxeraturiko 67 haurretatik soilik 7k zutela adierazi zuten bitartean, bigarrenak argi erakutsi zuen espetxeetako haurrek hasieran espero zena baino garapen baxuagoa zutela. Are gehiago, mintzairaren arloaren murrizketa egonaldiarekiko proportzionala zela aurkitu zuten, hau da, murriztapena areagotu egiten zela preso igarotako denbora handitu ahala (Lejarraga eta besteak, 2011). Atzerapen horien arrazoiak izan daitezke, batetik, espetxeetako amek zaintzari buruz ezagutza urria izatea (Lejarraga eta besteak, 2011), eta bestetik, kartzeletan jostailu bizigarriak zein eguneroko objekturik ez egotea edota ordu luzeak haur-kotxeetan igarotzea, amek ez baitiote haien haurrari lurretik lau oinean ibiltzen utzi ohi izaten higiene kontuengatik (Black, 1992).

Dena dela, hainbat arazo dituztela argi dago, eta atzerapen kognitiboetatik haratago, zenbait ezberdintasun fisiko (altura baxuagoko eta gorputz-masaren indize altuagoko haurrak izan ohi dira) zein nahasmendu emozional adierazten dituztela ikusi da (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017; Lejarraga eta besteak, 2011). Hala ere, ezaugarri fisiko horiek maila sozioekonomiko baxuarekin erlazionatzen direnez, ezberdintasun horiek faktore sozialengatik edo espetxearen beraren efektuarengatik izango ote diren zalantza dago (Lejarraga eta besteak, 2011). Arazo psikologikoei dagokienaz, berriz, hainbat aurkitu dira: hersturazko nahiz depresiozko jarrerak,

trauma osteko estresaren sintomak (Byrne eta besteak, 2012), aurre-egite estrategia desagokiak (Kanaboshi eta besteak, 2017), garapen sozial zein emozionaletan atzerapenak (Byrne eta besteak, 2010) eta delituzko jardueran parte hartzeko probabilitate altuagoa (Byrne eta besteak, 2010, 2012; Makariev eta Shaver, 2010).

Gainera, De la Rosa GKEko koordinatzaileak haur bakarti zein independenteak direla adierazi du, arreta ez ematen saiatzen direla, beste umeekin jolasteko interes handirik erakusten ez dutela eta nahiko isilak direla, beren sentimenduak ezkututzen dituztelarik (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017). Azken finean, hori espetxeek aurkeztzen duten errealitate ezohikoaren ondorio izango litzateke.

3. Atxikimenduaren teoria eta kartzeletan jaio nahiz hezi diren haurren atxikimenduaren garapena

Orain arte deskribaturiko kartzelako testuinguruak haurren garapen orokorrean eragiteaz gain, atxikimenduaren garapenean ere eragiten du. Hain zuzen, amaren osasun mentalaren konplexutasunak eta denbora baten ondoren haurren eta amaren artean gertatzen den banaketa dira atxikimenduaren garapen ziburra oztopatzen duten faktore nagusiak. Hala, espetxeko testuinguruan agertzen diren bi ezaugarri horiek aintzat hartuz, atal honetan kartzelan jaio nahiz hezi diren haurren atxikimenduaren garapenaren gaineko azterketa teorikoa egingo da. Hortaz, lehenengo, atxikimenduaren kontzeptuari hurbilpen teoriko bat egingo zaio eta, ondoren, espetxea den espazio berezi horretan haurren atxikimendua zer noranzkotan garatzen den aztertuko da.

3.1. Atxikimenduaren kontzeptu teorikoa

50eko hamarkadaren hasieran, Bowlby-k (1951) haien amarengandik bananduak izaten diren haurrek larritasun handiko jarrerak adierazten dituztela aurkitu zuen (Howe eta besteak, 1999). Hala, jaioberriei beren zaintzaile nagusiekin lotura afektibo indartsu bat garatzen dutela ikusi zuen, harreman hori hautsiz gero, haurrak estutasun handia senti dezakeelarik. Lotura afektibo hori eta beraren ezaugarri espezifikoak atxikimenduaren teoriatik aztertu dira.

Atxikimenduaren teoria harreman afektiboetan zein banako bakoitzaren prozesu psikosozialean oinarrituriko nortasun-garapenaren teoria da (Howe eta besteak, 1999), zeinak aldarrikatzen duen haurren eta beraren ingurune sozialaren arteko elkarrekintzen kalitateak eragin handia duela haurren garapenean edota gaitasun sozial zein emozionaletan.

Zaintzaile nagusi edo atxikimendu-irudiaren eta haurren arteko atxikimendu-harremanaren garapenean, bi jokabide-sistemaren arteko elkarrekintza gertatzen da: batetik, haurren atxikimendu-sistema dago, zeina gertutasuna bilatzen duten portaeren bitartez adierazten den, eta, bestetik, helduaren zaintza-sistema, zeina eskakizun horiei erantzuteko egiten diren jokabideekin osatzen den, haurren zaintza bermatuz. Hala, esperientzia goiztiarretan gertatzen den bi sistema horien arteko elkarrekintzen bitartez, haurrak oroimenean gorderiko barne-ereduak

garatzen ditu (Internal Working Model) (Bowlby, 1969/1982). Barne-ereduak norberaren gaineko (autoestimua) nahiz besteen gaineko (konfiantza) ereduak barne biltzen dituzten irudikapen mental, mapa kognitibo, eskema edota gidioen multzoa dira, eta bi irizpideren arabera eratzten dira: atxikimendu-irudiaren sentikortasunaren nahiz prestutasunaren arabera, eta bestetik, erantzun horren baitan haurrak laguntza jasotzea merezi ote duen egiten duen balioespenaren arabera. Hortaz, elkarrekintza-esperientzien kalitateak bai norberaren eta bai gainerakoien barne-ereduak positiboak edo negatiboak izatea eragiten du, eta, beraz, gainerakoekin sortzen diren harremanei buruzko igurikapenak lehenengo hilabeteetan izandako esperientzien arabera eratzten dira (González, 2022).

Hainbat ikerketak atxikimendu ziurra garatzea funtsezkoa dela aldarrikatzen dute, atxikimendua banakoaren garapen osasuntsu baterako oinarria baita (Byrne eta besteak, 2010; Howe eta besteak, 1999; Kanaboshi eta besteak, 2017). Izan ere, harreman osasungarri baten esperientziek banakoari ziurtasuna zein autonomia ematen diote, eta garapen pertsonalarekin, autorrealizazioarekin nahiz erresilientziarekin erlazionatzen da (Howe eta besteak, 1999; Kanaboshi eta besteak, 2017; Poehlmann, 2005). Halaber, atxikimendu ziurrak bizitzan aurrerago intimitatea lortzeko beharrezkoa den gaitasuna errazten du, eta intimitatea osasun fisikoaren nahiz mentalaren faktore nagusitzat hartu izan da (Kanaboshi eta besteak, 2017). Aitzitik, hainbat ikerketak adierazi dute atxikimendu ez-ziurra, helduaroa iritsi ahala, ondoez pertsonalarekin, harremanetarako zailtasunekin eta jokabide arazotsuekin erlaziona daitekeela, baita nahasmendu psikologikoekin (adibidez, antsietate-, depresio- edota elikadura-nahasmenduak) eta gaitz fisikoekin ere (adibidez, bihotzeko edota metabolismoko gaixotasunak) (Howe eta besteak, 1999; Kanaboshi eta besteak, 2017; Makariev eta Shaver, 2010).

Hiru atxikimendu mota ezberdintzen dira. Izan ere, Bowlby atxikimenduari buruzko lanekin hasi eta urte batzuk geroago, Mary Ainsworth-ek «egoera arrotzaren metodologia» (SSP, ingelesezko *Strange Situation Procedure* terminotik) garatu zuen, zeinaren bitartez atxikimenduaren hiru kategoria nagusi identifikatu zituen: ziurra, ez-ziur erresistente edo antsiasu-anbibalentea, eta ez-ziur iheskorra. Beranduago, hainbat autorek laugarren patroia bat aurkitu zuten: ez-ziur desantolatua (Fowler, 2021; Makariev eta Shaver, 2010).

Atxikimendu ziurreko haurrak zaintzailearengana zuzenean eta era positiboan hurbiltzen dira, jakinik baldintzarik gabeko ulerkuntzaz nahiz kontsolamenduz erantzungo diola haien ondoezari. Egoera horretan, haurra ziur, balioetsirik nahiz ahaldundurik sentitzen da, amaren babesean nahiz zaintzan konfiantza dauka, eta horrek ingurunea aztertzeraz bultzatu ez ezik, elkarrekintza sozioafektiboak kontrolatzeko eta bere emozio propioak erregulatzeko gai izatea ere eragiten du (Howe eta besteak, 1999; Makariev eta Shaver, 2010). Atxikimendu ez-ziur antsiasu-anbibalente eta iheskorra, aldiz, zaintzailea iragarrezina edota kontsolatzeko ezgai denean sortzen da; haurrak bere zaintzailearengana hurbiltzeko «baldintza» batzuk daudela ikasten du eta, hala, atxikimendu-irudiaren eskuragarritasun emozionala handitzeko eta zaintza nahiz babesa eskuratzeko, haurrak zaintzailearen arreta exijitzen (anbibalentearen kasuan) edo banantzen (iheskorren kasuan) ikasten du

(Fowler, 2021; Howe eta besteak, 1999). Hala, atxikimendu-estilo anibivalente bat duten hurrek zaintzailearen tinkotasunik ezari aurre egiteko haien jokabide edota erreakzioak maximizatzen dituzte eta atxikimendu-estilo iheskor bat dutenek, berriz, ukatu egiten dute atxikimenduaren jokabide eta afektu oro (Howe eta besteak, 1999). Azkenik, atxikimendu desantolatuaren patroia zaintzailearen gertutasuna eskuratzeko edo haien ondoeza maneiatzeko estrategia koherenterik ez izatean oinarritzen da (Howe eta besteak, 1999; Makariev eta Shaver, 2010); hau da, haurrak erabiltzen duen jarrera batek ere ez duenez zaintza, babesa edota kontsolamendua eragiten, haur horien atxikimendu-jokabideak gero eta desantolatuago bihurtzen dira, iheskorren ukapena eta anibivalenteen gehiegikeriazko nahasketa bat garatuz (Howe eta besteak, 1999; Lyons-Ruth eta Jacobvitz, 2016).

Hala, banako bakoitzak bere atxikimendu mota garatzen du, eta ezberdintasun indibidual horiek auresale batzuen arabera azaltzen dira (Belsky eta Pasco Fearon, 2016; Kammermeier, 2021), hala nola haurren eta beraren atxikimendu-irudiaren arteko elkarrekintza motaren, atxikimendu-irudiaren aldagai indibidualen eta testuinguruko faktoreen arabera. Haurren eta beraren atxikimendu-irudiaren arteko elkarrekintzari dagokionez, atxikimendu ziurraren auresale nagusiak atxikimendu-irudiaren sentiberatasuna eta erantzugarritasuna dira, hau da, jaioberriak azaleratzen dituen behar-seinaleak (adibidez, negarra, emozio-adierazpenak, gorputz-mugimenduak eta abar) behar bezala antzemateko gaitasuna, bai seinale horiek egokitasunez interpretatuz eta bai haiei era azkar, kontingente zein egonkor batean erantzunez (Black, 1992; Kammermeier, 2021; Kanaboshi eta besteak, 2017).

Hortaz, atxikimendu ziurreko haur baten amak sentiberatasunez erantzuten die haren beharrei; bere aktibazio emozionala erregulatzeko gai da, eta egoki interpretatu nahiz erantzuten du, intrusibitate gabe (Kammermeier, 2021). Aldiz, atxikimendu anibivalentea duen haur baten amak haurren behar-seinaleak interpretatzeko eta elkarrekintza sinkronizatuak edota kontsistenteak ezartzeko zailtasunak izaten ditu, eta atxikimendu iheskorra duen haur baten amak emozionalki urrunduz erantzuten du haurren herstura edota beldurrezko adierazpenen aurrean, haurrak bere emozio negatiboak erreprimitzea eraginez (Kammermeier, 2021; Lyons-Ruth eta Jacobvitz, 2016; Makariev eta Shaver, 2010). Bukatzeko, atxikimendu desantolatu batez ere tratatu txarrak edo zaintza negligeak jasan dituzten haurrengan aurkitu izan da. Izan ere, haurrak babesa eta egoera agresiboak bizitzen ditu pertsona berberarengandik, eta horrek haurra egoera afektibo desantolatu batean egotea eragiten du (Lyons-Ruth eta Jacobvitz, 2016; Makariev eta Shaver, 2010).

Atxikimendu-irudiaren aldagai indibidualei dagokionez, atxikimendu-irudiaren historia afektiboak eta ongizate zein osasun mentalak haurrari ematen zaion zaintzaren kalitatean eta, beraz, atxikimenduaren ziurtasun/ez-ziurtasunean eragina dutela ikusi da (Atkinson eta besteak, 2000; Hsiao eta besteak, 2015; Makariev eta Shaver, 2010). Beste era batera esanda, atxikimendu-irudiak bere atxikimendu-harreman goiztiarrei buruz dituen irudikapenak erabakigarriak dira haurarentzat oinarri ziur bat izan dadin. Izan ere, atxikimendu-irudiak haurrekiko izaten dituen jarrera zein jokabideek aldeztu aurretik izandako atxikimendu-harreman esperientzien

eragina dute eta, beraz, atxikimendu-irudiak atxikimenduari buruz dituen irudikapenen arabera hartzen ditu elkarrekintza-jokabideak bere haurrarekiko, jokabide horiek haurraren atxikimenduaren irudikapenean eragiten dutelarik (Hsiao eta besteak, 2015). Era berean, amaren rolaren gogobetetzea atxikimendu ziur baterako garrantzitsua dela ikusi da (Isabella, 1994), eta halaber, gurasoen depresio-maila altuek zaintza intrusibo edota iheskor batekin eta, beraz, haurraren atxikimendu ez-ziurra-ekin erlazioa dutela aurkitu da (Atkinson eta besteak, 2000; Belsky eta Jaffee, 2006).

Azkenik, atxikimendu-harremanaren kalitatearekin erlazioa duten ingurune-faktore ikertuenak gurasoen arteko harremanaren kalitatea, gurasoek jasotzen duten sostengu soziala, bizi diren auzoa eta estatus sozioekonomikoa dira. Hain zuzen, harreman ona duten gurasoen haurrek atxikimendu ziurrago bat garatzen dute haien harremanean zoriontsuak ez diren gurasoen haurrek baino. Adibidez, gurasoen arteko eztabaidak haurraren aurrean gertatzen badira, haur horiek atxikimendu ez-ziur bat garatzeko aukera handiagoa dutela aurkitu da (Atkinson eta besteak, 2000). Bestetik, atxikimendu-irudiaren sare soziala kalitate handikoa denean, haurrarekin dituen elkarrekintzak ere gero eta kalitate handiagokoak dira, haurraren atxikimendu ziurragoa iragarritz (Belsky eta Pasco Fearon, 2016). Familiaren maila sozioekonomikoari dagokionez, bizi-baldintza eskasek eragiten duten estresak amaren sentiberatasuna eta haurrarekin izandako elkarrekintza zaildu ditzake, batez ere haurraren tenperamentua zaila baldin bada (Belsky eta Jaffee, 2006). Horiez gain, kartzelako testuingurua ere atxikimenduaren garapen ziurra oztopa dezakeen beste arriskuzko ingurune-faktore bat da. Datorren atalean gai horretan sakonduko da.

3.2. Kartzelan jaio nahiz hezi diren haurren atxikimenduaren garapena

Espetxeraturik dauden amen hurrei buruzko ikerketa gutxi egon arren, argi ikusi da giltzaperaturik egoteak hainbat asaldura eragin ditzakeela haur horien garapenean (Poehlmann, 2005). Izan ere, autore batzuek diotenez, kartzelak dolu bat jasatearen erronka berdina dakar, eta espetxeko egonaldia askotariko ondorio orokorrez gain, haur horien atxikimendu-harremanaren garapenean ere zenbait asaldura eman daitezkeela ikusi da (Kanaboshi eta besteak, 2017).

Hainbat ikerketaren emaitzen arabera, kartzelaturiko amen haurrek atxikimendu ez-ziurra garatzeko joera dute (Byrne eta besteak, 2010; Kanaboshi eta besteak, 2017). Are gehiago, anibalentzia, desantolaketa, indarkeria nahiz estimu-gabezia oinarrituriko harremanak sortu ohi dituzte, eta hori batik bat, espetxean gertatzen den amarenganako banaketarekin eta zaintzaile nagusiaren aldatetekin erlazionatu izan da (Poehlmann, 2005). Izan ere, arestian aipatu bezala, 2 dira kartzelako testuinguruan haurrak bere amarekiko atxikimendu ziurra garatzeari zailtzen duten arrisku-faktore nagusiak: amaren osasun mentala eta denbora baten ondoren haurrak oraindik giltzaperaturik jarraitu behar duen amarengandik jasan behar duen banaketa. Ondoren, bi faktore horiek haurren atxikimenduaren garapenean duten eragina aztertzen da.

3.2.1. Amaren buru-osasuna haurraren atxikimendu-estiloaren arrisku-faktore gisa kartzela-testuinguruan

Atxikimenduaren ziurtasun/ez-ziurtasunaren auresaleen artean, atxikimendu-irudiaren ongizate psikologikoa erabakigarria da haurrari eskaintzen zaion zaintza sentiberan eta, hortaz, haurrak garatzen duen atxikimendu-harremanaren kalitatean. Hori horrela, Action for Children and Youth (Haur zein gazteentzako ekintza) elkartearen arabera, haurra bere amarekin kartzelan geratzearen helburua haien artean lotura afektibo indartsua sustatzea den arren, hainbat autorek zein karteletako langilek negatiboki balioesten dute haurrak kartzelan bizitzea (Abastoflor, 2021; Lejarraga eta besteak, 2011), espetxeetako amek arrisku handiko populazioa osatzen baitute haurren atxikimenduaren alterazioei dagokienez (Baradon eta besteak, 2008).

Hain zuzen ere, amen moduluetakako presoek buru-osasuna aztertu zuen ikerketa batek bertako emakumeen % 60k nahasmendu mentalen bat pairatzen zutela aurkitu zuen —batik bat depresioa eta drogen kontsumoa nahiz mendekotasuna—, baita hartutako immunoeskasiaren sindromea (HIESA) bezalako sexu bidezko transmisioa gaixotasunak ere (Baradon eta besteak, 2008; Byrne eta besteak, 2010). Are gehiago, espetxeetako emakumeen % 50ek abusu fisikoa, emozionala edota sexuala jasan dutela eta herenak gaztetan tutoretzapean egon direla aurkitu da (Baradon eta besteak, 2008). Beste autore batzuek ere informazio berdina topatu dute haien ikerketetan, adieraziz espetxeetako emakumeek abusu zein buru-nahasmenduz osaturiko historia konplexu bat dutela, haurtzaro arazotsu bat izan dutela, eta horrek guztiak estresa zein heretura handia eragiten dituela haurdunaldian zein haurraren zaintzan, beren seme-alabekin garatzen duten atxikimendu-harremanean negatiboki eragiten duelarik (Makariiev eta Shaver, 2010; Mulligan, 2019).

Ezaugarri horiek erlazio zuzen-zuzena dute haurrak garatuko duen atxikimendu-estiloarekin, amak bere zaintzailearekin sortu zuen atxikimendu-estilo berbera haurrari helaraz baitiezaioke atxikimendu-irudiak eratutako barne-ereduen bitartez. Izan ere, horri atxikimenduaren belaunaldien arteko transmisioa deritzo (Makariiev eta Shaver, 2010), eta espetxeraturik dauden emakumeen atxikimendu-patroiak aztertu dituzten ikerketa gutxi egon arren, hainbat azterlanetan atxikimendu ez-ziurraren estilo bat garatu dutela aurkitu da (Borelli eta besteak, 2010; Levinson eta Fonagy, 2004; Wardi eta besteak, 1996, Makariiev eta Shaver-ek aipatua, 2010).

Gainera, amen bizitzako alderdi kezkarri ugari kartzelaren testuinguruaren ondorioz aktibatzen direlako ustea nahiko onartua da, eta bizi-baldintza horiek amaren ongizate psikologikoan eragina izaten dute, haurrak atxikimendu ziurra garatu ahal izateko oztopo garrantzitsuak sortzen direlarik (Baradon eta besteak, 2008). Horrekin loturik egon daitekeen adibide bat amatasunaren rola izango litzateke. Izan ere, gizartean dagoen kartzelari buruzko estigmak emakume nahiz ama gisa huts egin dutela adierazten die emakume horiei (Fernández, 2017), eta atxikimenduaren garapenaren auresaleetan azaldu bezala, ama bere rolaarekin aserik ez egoteak negatiboki eragiten du haurraren atxikimendu ziurraren garapenean. Gainera, espetxeetako bizi-baldintzen ondorioz autore batzuek diote

emakume horiek infantilak nahiz mendekoak direla, baita zaintzari buruz ezagutza gutxi izaten dutela eta haien haurrei eskaintzen dieten estimulazioa ere oso urria dela (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017).

Bestetik, hainbat autorek ikusi dute kartzelan dauden ama gehienek haserrea adierazten dutela (Baradon eta besteak, 2008). Amorru hori batzuetan espetxeraturik egotearekin erlazionatzen da eta batik bat bertako langileei nahiz espetxe-sistemari berari zuzentzen diete, oso kasu gutxitan bideratuz zuzen-zuzenean beren haurrari. Hala ere, ikerketa batean ikusi zen, espetxeraturik zeuden amak elkarrizketatu ondoren, beren narratibetan haurrarekiko nolabaiteko etsaitasun ezkutua azaleratzen zutela, eta amorru horrek haurraren zainketaren kalitatean negatiboki eragiten zuela (Baradon eta besteak, 2008). Esate baterako, elkarrizketa batean 4 hilabeteko haurra «nagi» gisa izendatzen zuten, edo atxikimendu-jokabide «erasokor» bat adierazten zuela esaten zuten, hots, haurrak intentzio negatiboek bultzaturik jokatzeko zuela. Emozio, pertzepzio, igurikapen zein jarrera horiek amaren barne-eredua osatzen dute, eta horrek, arestian azaldu bezala, ondorio negatiboak izan ditzake haurraren garapen afektiboan (Baradon eta besteak, 2008).

Gainera, kasu askotan ez dira kontziente haien haserrealdiak haurrari eskaintzen zaion zainketan eragin dezakeenik, ezta espetxea bera haur batentzat leku desegoki bat denik ere (Baradon eta besteak, 2008). Ama ugari errudun sentitzen dira haurra ekintza normaletatik edota gainerako senideetatik aldendurik dagoelako, baina askotan espetxeak haurrei kalte egin diezaiekeela ukatzen dute, haurrak oroitzeko txikiagiak direla edota haien sentimenduak haurraren aurrean ezkuta ditzaketela adieraziz (Baradon eta besteak, 2008).

Espetxeraturik dauden amen egoera psikologikoaren harira, interesgarria da aipatzea amaren eta haurraren artean atxikimendu-harreman ziur bat garatzea oztoka dezakeen fenomeno bat; alegia, espetxean haurrak beste hainbat emakumez daude inguraturik eta, maiztasunez, haien ama ez den beste pertsona bat arduratzen da haien zaintzaz (Eloff eta Moen, 2003). Hori hein batean onuragarria izan daitekeen arren (sare sozialaren eragin positiboa kontuan harturik), iraunkortasun gabeko zaintza bat izatearen arriskua dauka. Izan ere, pertsona ezberdin gehiegi haur batez arduratzeak edota amak konstantziarik gabeko jarrerak izateak atxikimenduan alterazioak ekar ditzakete (Eloff eta Moen, 2003).

3.2.2. Amaren eta haurraren arteko banaketa kartzela-testuinguruan haurren atxikimendu-estiloaren arrisku-faktore gisa

Kartzelaren testuinguruan haurrek haien amarekiko atxikimendu ziurra garatzea zaildu dezakeen beste arrisku-faktore bat haurraren eta amaren artean indarrez gertatzen den banaketa da. Espainian eta Euskal Herrian —kasu gehienetan eta hainbat adituk amaren eta haurraren arteko banaketak adingabearen garapenean negatiboki eragingo ez duela estimatzen dutenean— haurrak 3 urte betetzen ditutenean espetxetik irten behar du, eta beste zaintzaile batengana bideratzen da (Guerra Escudero, 2019). Praktika hori haurra babesteko argudiopean justifikatzen da, baina banaketak atxikimenduaren harremana mehatxatzen du (Byrne eta besteak, 2012). Izan ere, gaur egun ondo dokumentaturik dago banaketak atxikimendua

kaltetu dezakeela, baita amaren nahiz haurraren buru-osasunean negatiboki eragin ere, lotura emozionalaren prozesurako oztopo bat izanik (Kwarteng-Amaning eta besteak, 2019).

Espetxean amarekin 3 urte igaro ondoren derrigor gauzatzen den banaketa goiztiarra atxikimenduentzat kaltegarria dela aldarrikatzen duten hainbat ikerketa daude (adib.: Kanaboshi eta besteak, 2017). Horien arabera, haurraren gizarteratze goiztiarrak arrisku soziala ekar dezake batez ere aurretik inoiz ez bada espetxetik kanpo bizi (Abastoflor, 2021; Byrne eta besteak, 2010), eta haurrak amarekin sortzen duen lotura emozionalaren ondorioz banaketaren esperientzia oso gogorra izan ohi da (Abastoflor, 2021; Fernández, 2017). Hain zuzen, haurrak batik bat negarrez hasten dira banaketaren unean, ama etengabe bilatzen edota deitzen hasten dira, eta hein handi batean tristura sentitzeaz gain, kezka nahiz nahasketa, bakardadea, amorrua, beldurra, depresioa, ukapena, lasaitasuna, lotsa eta errua ere sentitzen dute (Poehlmann, 2005). Halaber, garapenean atzerapenak, lotarako zailtasunak, emozioen sorgortasuna eta pertsonenganako lotura emozional urria adierazten dituzte. Are gehiago, haur gehienek askotariko erreakzioak izaten dituzte, emozio-nahiz jokabide-erantzunen konplexutasuna adieraziz (Poehlmann, 2005).

Beste alde batetik, ikerketa batean aurkitu zen haurrengandiko banaketak amen ezegonkortasun emozionala, depresio-sintomak eta buru-osasuneko zailtasunak eragin ditzakeela, banaketak estutasuna eragiten baitu eta, horrek halaber, herstura nahiz depresio-sintomak (Powell eta besteak, 2017). Gobernu-dokumentu batzuek ere banaketak zuzen-zuzenean amen buru-osasunean eragiten duen tortura mental bat dela erakutsi dute eta, izan ere, banaketa emakumeentzat traumatikoa dela dioen dokumentu guztien adostasun bat dago (Byrne eta besteak, 2010; Powell eta besteak, 2017). Beraz, banaketak berak beste arrisku-faktore bat den amaren osasun psikologikoa ere elikatzen du.

Banaketak haurraren atxikimendu ziurraren garapenean negatiboki eragin dezakeela erakusten duen ikerketa interesgarri bat Amerikako Estatu Batuetan (AEB) preso ziren 30 amarekin burutu zuten azterlana da. Izan ere, ikerlan horretan haurrak eta beraren amak espetxeko haurtzaindegiaren programan elkarrekin igaro zuten denboraren arabera, bi talde sailkatu zituzten. Lehenengo taldeko haurrak urte oso batez egon ziren haien amarekin elkarrekintzan, eta bigarren taldeko haurrak, berriz, urte erdiz soilik. Hala, egoera arrotzaren metodologiaz baliatuz, honako emaitzak eskuratu ziren (Byrne eta besteak, 2010): lehenengo taldean, urte batez amarekin geratu ziren haurren % 75ek atxikimendu ziurra azaldu zuten, % 0k antsiasu-anbibalentea, %6 k iheskorra eta % 19k desantolatua. Bigarren taldean, berriz, amarekin denbora-tarte txikiago batez geratu zirenen artean, % 43k ziurra, % 29k antsiasu-anbibalentea, %14k iheskorra eta %14k desantolatua garatu zuten (Byrne eta besteak, 2010) (ikus 3. taula).

Halaber, urte oso batez haien amarekin elkarrekintzan egoten diren haurrek arriskuko beste talde sozial batzuek baino atxikimendu ziurragoa adierazten dutela ikusi da metaanálisi batean (Byrne eta besteak, 2010). Hain zuzen, maila sozioekonomiko baxua zuten banakoekin egindako 7 ikerketa, droga edota alkohola

kontsumitzen zuten amei buruzko 4 ikerketa, depresioa zuten amei buruzko 9 ikerketa eta tratu txarrak ematen zituzten amei buruzko 5 ikerketa aintzat hartu zituzten, eta lehenengo taldeko haurren atxikimendua —alegia, urte batez haren amarekin espetxeko haurtzaindegian geratu zirena— kategoria sozial horiena baino ziurragoa zela aurkitu zen (Byrne eta besteak, 2010). Aldiz, bigarren taldeko haurren kasuan, hots, elkarrekintzan urte bat baino gutxiagoz egon ziren haurren kasuan, arrisku altuko lagin sozial horien emaitzekin parekatu zen, adieraziz haien amarekin haurtzaindegi-programa batean urte bat baino gutxiagoz egoten diren haurrek atxikimendu ziurrerako oztopoak dituztela (Byrne eta besteak, 2010). Ikerketa horrek agerian uzten du banaketak atxikimendu ez-ziur bat garatzeko duen arriskua, baita hori eragozteko espetxe barruko haurtzaindegi-programek duten garrantzia ere.

3. taula. Egoera arrotzaren bitartez talde 1ek eta talde 2k eskuratu dituzten atxikimendu-estiloak (Byrne eta besteak, 2012).

	Ziurra (%)	Antsiatsu-anbibalentea (%)	lheskorra (%)	Desantolatua (%)
Ikerketako haur guztiak N=30	60,00	13,30	10,00	16,70
Talde 1: Elkarrekintzan 1 urte n=16	75,00	0,00	6,3	18,8
Talde 2: Elkarrekintza motzagoa n=14	42,9	28,6	14,3	14,3

Hortaz, espetxe barruko amen moduluen testuingurua ez da ingurunerik egokiena haur batek bere amarekiko atxikimendu ziur bat garatu ahal izateko, bai atxikimendu-irudiaren ongizate psikologikoa guztiz bermaturik ez dagoelako eta bai banaketaren praktikak ondorio larriak eragin ditzakeelako 3 urteetan zehar sortu den lotura emozionalean. Funtsean, espetxean jaio nahiz hezi diren haurrek atxikimenduaren garapen ziur baterako zenbait oztopo dituztela aurkitu da (Byrne eta besteak, 2010, 2012; Kanaboshi eta besteak, 2017; Poehlmann, 2005).

4. Ondorioak

Espetxeetako testuingurua desegokia da haur batentzat. Presondegietan dauden amen moduluek, haur baten ongizateari begira dinamika ezberdin bat ezartzen saiatzen badira ere, haien egiturak, tenperaturak, elikadurak eta beste hainbat aldagaik argi erakusten dute ez diotela Haurraren Interes Gorena deritzonari jarraitzen, haurren garapen kognitibo zein emozionalak ondorio kaltegarriak jasaten baititu. Artikulu honetan, espetxea garapen orokorrerako ez ezik, atxikimenduaren garapen ziurrerako ere testuinguru arazotsua dela agerian utzi nahi izan da.

Atxikimenduaren gainean egin diren ikerketa anitzek atxikimendu ziurra eta buru-osasuna estuki erlazionaturik daudelako ebidentzia sendoa utzi dute psikologiaren komunitatean, eta hala, espetxean jaio nahiz hezi diren haurrengan arreta jartzea funtsezkoa da, bide horretan haur-profil horren bizi-kalitatea ere jorratzen baita.

Azterketa teoriko honetan zehar azaldu den bezala, kartzelako testuinguruan atxikimenduaren garapen ziurra oztopatzen duten faktore nagusiak hauek dira: amaren ongizate psikologikoa eta hiru urteren buruan gertatzen den banaketa. Bi aldagai horiek, ordea, kontraesankorrak dira: alde batetik, haurren eta amaren artean lotura emozional bat garatu ondoren elkarrengandik banantzeak haurren atxikimendu ziurra oztopatzen du, baina beste aldetik, berriz, haurra espetxean amarekin batera geratzeak ere haren ongizate osoa mehatxatzen du, bai amak baliabide material, fisiko zein psikologikorik ez duelako eta bai espetxea bera ez dagoelako haur batentzat diseinaturik. Hala, kontraesan horrek bi eztabaidagai dakartza: batetik, banaketaren problematikarekin erlazionaturik, haurren egonaldiaren denbora zehazten duen legearen unibertsaltasunik eza, eta bestetik, amaren ongizatearen problematikarekin erlazionaturik, kanpo-unitate zein esku-hartze programen baliabide urria.

Lehenengo eztabaidagaiari dagokionez, Jiménez eta Palacios-ek (1998, Boix Campos eta Aguirre Ocaña-k aipatua, 2017) amaren eta haurren artean gertatzen den banaketa erregulatzen duen araudiaren eboluzioa erakusten dute, eta 1882ko urtarrilaren 31ko lehen Arauditik —zeinak egonaldiaren muga 7 urtetan ezartzen duen— gaur egun dagoen 13/1995 Lege Organikora arteko denbora-tartean —zeinak muga 3 urtetan ezartzen duen—, espetxe-legediak aldaketa ugari jasan dituela adierazten dute, lege bakoitzak adin ezberdin bat zehazten baitu. Halaber, nazioko, nazioarteko eta Europako espetxe-politikak elkarren artean ezberdindu egiten dira, eta herrialde batzuetan haurren egonaldia 6 urte artekoa izan badaiteke ere (adibidez, Kanbodia, Mexiko eta India), beste batzuetan, berriz, haurrak ez dira inoiz espetxean sartzen (Boix Campos eta Aguirre Ocaña, 2017). Hortaz, Boix Campos eta Aguirre Ocaña-k (2017) adierazten duten bezala, atxikimenduari buruzko ikerketarekin jarraitzeaz gain, haien amarekin preso bizi diren haurren egonaldiaren gehiegizko adina erregulatzen duen politika unibertsal baten beharra exijitzea premiazkoa da. Izan ere, atxikimenduaren garapena nahiz eboluzioa unibertsala dela kontuan izanik, espetxeko egonaldiaren adin-mugak berbera izan beharko luke herrialde guztietan.

Bigarren eztabaidagaiari dagokionez, Espainia osoan soilik 3 kanpo-unitate egoteak eta emakume batzuek makroespetxe maskulinoetan egon behar izateak agerian uzten du kartzelek genero-ikuspegirik ez izateaz gain, bertako amengan eta, beraz, haien haurrengan ere arreta gutxi jartzen dela. Halaber, ezartzen diren esku-hartze programa urriek amari erreminta psikologikoak eskaintzeko ahalegin gutxi egiten direla adierazten dute. Beste era batera esanda, baliabideak dituen espetxe bat gune ziur bat izan daiteke haurarentzat, eta amari bere amatasunaren prozesuan sostengua zein bitartekoak eskaintzen bazaizkio, haurrek atxikimendu ziurra gara dezakete (Abastoflor, 2021; Byrne eta besteak, 2010; Mulligan, 2019).

Beraz, amaren ongizatean laguntzeko eta haurrarekin atxikimendu ziur bat garatzeko esku-hartze programak funtsezkoak dira. Autore ugari espetxeetako haurtzaindegiak hurrek atxikimendu ziur bat garatzeko eremu esanguratsu gisa aldarrikatzen dituzte, gune horietan ama bere haurraren zaintzaile nagusia izaten baita eta, gainera, zainketa horretarako laguntza nahiz heziketa jasotzen baititu (Byrne eta besteak, 2012; Byrne eta besteak, 2010; Kanaboshi eta besteak, 2017). Bestetik, Londresen garatu zuten *New Beginnnning* (Hasiera Berriak) programak, ikaskuntzan nahiz esperientzian oinarriturik, presondegian dauden amaren eta haurraren arteko atxikimendu ziurra sustatzen du eta banaketarako prestatzen dituzte, eta halaber, Abastoflor-ek (2021) gurasoen irudikapen mentalak aldatzeko, amaren sentiberatasuna sustatzeko eta amaren ongizate nahiz buru-osasuna hobetzeko atxikimenduan oinarrituriko esku-hartze programak aipatzen ditu (IBA, gaztelaniazko *Intervención basada en el apego* siglengatik).

Haatik, espetxeraturik dauden amei baliabide psikologikoak eskaintzeko eta haien haurrarekin atxikimendu ziurra garatzeko esku-hartze programak sortzen hasi diren arren, gaur egungo gizarteko agenda politikoan ez dirudi espetxean bizi diren haurren ongizatea lehentasunezko arazoa denik. Fernandez (2017) eta Torrado-k (2016) adierazi zuten emakumeen premiei buruzko politikek egoera kaltegarrian jarraitzen dutela, baliabide murrizt nahiz baldintza kaskarretan oinarriturik. Izan ere, espetxe barruko esku-hartze programek, kartzelan bertan ezartzen direnez, haien mugak dituzte, eta benetan Haurraren Interes Gorenari jarraituko balitzaio (zeina Haurraren Eskubideen Konbentzioaren printzipio gidarietako bat den), ama ez litzateke kondena betetzeko bitarteko itxi batean geratuko. Aitzitik, sarreran azaldu diren gainerako alternatiba posibleak hartuko lirateke kontuan, hala nola kanpo-unitateak edota mendeko unitateak. Esate baterako, Zuil eta Libório-ren (2016) arabera, amen moduluak gaur egun dauden bitarteko guztien artetik kaltegarrienak dira, eta aurkara, kanpo-unitateak bezalako erregimen irekietan amak gaitasun nahiz autonomia handiagoa dauka haurraren estimulazio zein zainketarako.

Adierazi den bezala, ordea, Espainian 3 kanpo-unitate daude soilik, eta gainera, haurren gehiengoak ez dauka horietako batera joateko aukerarik, haurrak haientzat egokitu gabe dauden instalazioetan geratzen direlarik (Fernández, 2017). Are gehiago, Zuil eta Libório-k (2016) diote Espetxeen Idazkaritza Nagusiak ez duela egoera horretan dauden hurrei buruzko daturik ematen. Esate baterako, 2015ean 3 haur amen modurik ez duen Tenerifeko kartzelan bizi zirela adierazten dute, eta informazio hori ez zela ministerioaren txostenetan azaltzen. Gainera, 2011n, gobernu-aldaketaren ondorioz kanpo-unitateek jaso zitzaizkien presoek kantitatea murriztu egin zuten, eta hasiera batean 6 kanpo-unitate sortzeko proiektua aurkeztu zuten arren, 3 eraiki ondoren prozesua eten egin zen (Zuil eta Libório, 2016). Ildo beretik, 2008an emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarentzat lehen Ekintza Programa onetsi zen, zeinak 120 neurri barne biltzen zituen, hala nola kanpo-unitateen sorkuntza eta amaren eta haurraren arteko harremanaren hobekuntza, baina 2011ko gobernu-aldaketaren ondorioz bertan behera gelditu zen (Fernández, 2017). Hortaz, haurra bere amarekin geratzearen erabakia hurrek zein amek lotura afektibo positibo bat garatzeko duten eskubide konstituzionalean pentsatuz

hartzen den arren, praktika horrek gutxirako balio du gobernuak ez badio amari bere amatasun-prozesuan laguntza eskaintzeko baliabide errealik jartzen.

Baliabide murriztekin erlazionaturik dagoen beste gai problematiko bat sakabanatzearena da. Izan ere, kanpo-unitateen proiektua mahaigaineratu zenean eraikuntzak geografikoki banatu ziren espetxe barruko amen moduluak ordezkatzeko, baina gobernu-aldaketaren ondorioz soilik 3 eraiki zirenez, emaitza barne-moduluak ixtea eta kanpo-modulu berriak inoiz ez irekitzea izan zen (Zuil eta Libório, 2016). Beraz, preso diren ama asko haien herri nahiz familiarengandik banantzeraz daude beharturik (Fernández, 2017; Zuil eta Libório, 2016). Euskal Herrian, adibidez, 2022an ezarri zuten amen modulu bakarra Martuteneko kartzelan (Gipuzkoa), urte hori arte ama euskaldunek Espainiara joan behar izaten zuten, haien etxea atzean utziz. Gainera, kartzela hori itxi eta Zubietan (Gipuzkoa) berri bat irekitzeko egitasmoa mahaigaineratu zuten 2005ean, baina gaur egun oraindik ez dute proiektu horrekin amaitu. Izan ere, Martuteneko amen modulua sortu zuten Zubietako espetxearen zabaltzea espero zen baino gehiago ari zelako atzeratzen, eta gaur egun oraindik presoek zein haien haurrek 1948an irekiriko Martuteneko espetxe zaharkituan jarraitu behar dute (EFE, 2022; Napal, 2024; Torrado, 2016).

Hortaz, artikulu honek azaldu nahi izan du kartzelan jaio nahiz hezi diren haurrek zenbait arrisku-faktore jasaten dituztela haien atxikimenduaren garapena ziurra izan dadin, baina hortik haratago, espetxeetako politikek preso diren emakumeen nahiz haien haurren behar zein eskubideak ase behar dituztela ere aldarrikatu nahi du. Batetik, banaketa 3 urterekin gertatu behar dela zehazten duen legea zalantzan jartzen da historikoki nahiz geografikoki iraunkortasunik ez duelako, eta bestetik, esku-hartze programa zein kanpo-unitate gehiago sortzearen urgentzia erakutsi nahi da. Zehazki, Euskal Herriko ama zein haurrengan jartzen da arreta, preso euskaldunok ere haien etxean bitarteko egokiak izan ditzaten. Funtsean, Javier Nistal-ek dioen bezala (Zuil eta Libório-k aipatua, 2016, 6. or.), «egoera ideala haurrak espetxean ez egotea izango litzateke, baina egon behar badute, ahalik eta egoera hobereanean egon daitezela».

4.1. Muga eta etorkizuneko ikerketa-ildoak

Artikulu honetan egiten diren ekarpenez gain, muga batzuk topatu dira, nagusia informazio-gabezia delarik. Izan ere, oro har espetxean haien amarekin bizi diren haurren atxikimenduari buruz ikerkuntza gutxi daude eta oraindik haur-profil horretan arreta asko jartzeke dago. Are gehiago, zehazki Espainiako eta Euskal Herriko haur giltzaperatuen atxikimenduari buruz datu gutxi daude; beraz, hori gai historiko nahiz kulturalak barne biltzen dituen beste muga bat izango litzateke. Esate baterako, preso diren amen osasun psikologikoari buruzko informazioa ezberdindu egin daiteke, adibidez, Euskal Herriko eta AEBko emakume espetxeratuen artean. Beraz, atxikimenduaren kontzeptua unibertsala den arren, arreta geografikoki fokuratzea esanguratsua da haur-profil horien atxikimenduari buruzko datuak ahalik eta zintzoenak izan daitezen.

Hortaz, datozen ikerketek informazio zentralizatuagoa bilatu beharko lukete, adibidez soilik Euskal Herriko ama zein haurrengan oinarrituz. Hala, datuak ahalik eta zehatzenak izango lirateke eta, bide horretan, ezarri beharko liratekeen esku-hartze programek gero eta baliozkotasun handiagoa izango lukete.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Abastoflor V.A. (2021). *Promoción de vínculos de apego seguro y acompañamiento en el proceso de separación: una propuesta de intervención socioeducativa para madres e hijos/as que viven en contexto carcelario* [Master Amaierako Lana, Universidad de Cantabria]. Facultad de Educación, Universidad de Cantabria. UCREA Repositorio Abierto de la Universidad de Cantabria. <https://hdl.handle.net/10902/26910>
- Atkinson, L., Paglia, A., Coolbear, J., Niccols, A., Parker, K.C.H., eta Guger, S. (2000). Attachment security: A meta-analysis of maternal mental health correlates. *Clinical Psychology Review*, 20(8), 1.019-1.040. [https://doi.org/10.1016/S0272-7358\(99\)00023-9](https://doi.org/10.1016/S0272-7358(99)00023-9)
- Baradon, T., Fonagy, P., Bland, K., Lenard, K., eta Sled, M. (2008). New Beginnings - An experience-based programme addressing the attachment relationship between mothers and their babies in prisons. *Journal of Child Psychotherapy*, 34(2), 240-258. <https://doi.org/10.1080/00754170802208065>
- Belsky, J., eta Pasco-Fearon, R. (2016). Precursors of attachment security. In J. Cassidy eta P.R. Shaver (argtz.), *Handbook of attachment: Theory, research, and clinical applications* (291-313. or.). Guilford Press.
- Belsky, J., eta Jaffee, J.S. (2006). The Multiple Determinants of Parenting. In D. Cicchetti eta D.J. Cohen (argtz.), *Developmental psychopathology: risk, disorder and adaptation* (38-85. or.). John Wiley & Sons.
- Black, D. (1992). Children of parents in prison. *Archives of Disease in Childhood*, 67(7), 967-970. <https://doi.org/10.1136/adsc.67.7.967>
- Boix Campos, M., eta Aguirre Ocaña, A. (2017). La infancia entre Rejas: necesidades y demandas. *Revista Nacional e Internacional de Educación Inclusiva*, 10(1), 3.144. <https://reunir.unir.net/handle/123456789/6480>
- Bowlby, J. (1951). Maternal Care and Mental Health. *World Health Organization Monograph*, 3, 355-533.
- Bowlby, J. (1969/1982). *Attachment and Loss: Attachment (Vol.I)*. Basic Books.
- Byrne, M. W., Goshin, L.S., eta Joestl, S.S. (2010). Intergenerational transmission of attachment for infants raised in a prison nursery. *Attachment and Human Development*, 12(4), 375-393. <https://doi.org/10.1080/14616730903417011>
- Byrne, M.W., Goshin, L., eta Blanchard-Lewis, B. (2012). Maternal Separations During the Reentry Years for 100 Infants Raised in a Prison Nursery. *Family Court Review*, 50(1), 77-90. <https://doi.org/10.1111/j.1744-1617.2011.01430.x>
- EFE (2022ko maiatzak 20). La nueva cárcel de Zubieta no entrará en funcionamiento hasta 2024. *Noticias de Gipuzkoa*. <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/2022/05/20/nueva-carcel-zubieta-entrara-funcionamiento-3589562.html>
- Eloff, I., eta Moen, M. (2003). An analysis of mother-child interaction patterns in prison. *Early Child Development and Care*, 173(6), 711-720. <https://doi.org/10.1080/0300443032000103070>
- Fernández, M.J.G. (2017). Maternidad en prisión. Situación de los hijos e hijas que acompañan a sus madres compartiendo condena. *Papers*, 102(2), 287-310. <https://doi.org/10.5565/rev/papers.2339>

- Fowler, G. (2021). *The unintentionally absent parent: adult attachment styles of children raised by an incarcerated parent* (Doktorego-tesia, Alliant International University). Faculty of the California School of Professional Psychology, Alliant International University. ProQuest Dissertation and Theses. <https://www.proquest.com/openview/85f05f634112e0ec46b8b0734ac8395c/1?pq-origsite=gscholar&cbl=18750&diss=y>
- González, S. (2022). Antecedentes de apego, tipos y modelos operativos internos. *Revista de psiquiatría infanto-juvenil*, 39(2), 2-15. <https://doi.org/10.31766/revpsij.v39n2a2>
- Guerra Escudero, I. (2019). *Mujeres En Prisión: Maternidad E Hijos* (Grado Amaierako Lana, Universidad de Valladolid). Facultad de Educación y Trabajo Social, Universidad de Valladolid. UVaDOC Universidad de Valladolid Repositorio Documental. <http://uvadoc.uva.es/handle/10324/39783>
- Howe, D., Brandon, M., Hinings, D., eta Schofield, G. (1999). *Attachment Theory, Child Maltreatment and Family Support*. Macmillan. <https://doi.org/10.1007/978-1-349-14975-9>
- Hsiao, C., Koren-Karie, N., Bailey, H., eta Moran, G. (2015). It takes two to talk: Longitudinal associations among infant-mother attachment, maternal attachment representations, and mother-child emotion dialogues. *Attachment and Human Development*, 17(1), 43-64. <https://doi.org/10.1080/14616734.2014.981671>
- Isabella, R.A. (1994). Origins of maternal role satisfaction and its influences upon maternal interactive behavior and infant-mother attachment. *Infant Behavior and Development*, 17(4), 381-387. [https://doi.org/10.1016/0163-6383\(94\)90030-2](https://doi.org/10.1016/0163-6383(94)90030-2)
- Kammermeier, M. (2021). *The Role of Maternal Emotional Availability and Attachment in Child Emotion Regulation* (Doktorego-tesia, Ludwig-Maximilians-Universität). Fakultät für Psychologie und Pädagogik, Ludwig-Maximilians-Universität. Elektronische Hochschulschriften der LMU München. <https://edoc.ub.uni-muenchen.de/30027/>
- Kanaboshi, N., Anderson, J.F., eta Sira, N. (2017). Constitutional Rights of Infants and Toddlers to Have Opportunities to Form Secure Attachment with Incarcerate Mothers: Importance of Prison Nurseries. *International Journal of Social Science Studies*, 5(2), 55. <https://doi.org/10.11114/ijsss.v5i2.2160>
- Kwarteng-Amaning, V., Svoboda, J., Bachynsky, N., eta Linthicum, L. (2019). An Alternative to Mother and Infants behind Bars: How One Prison Nursery Program Impacted Attachment and Nurturing for Mothers Who Gave Birth while Incarcerated. *Journal of Perinatal and Neonatal Nursing*, 33(2), 116-125. <https://doi.org/10.1097/JPN.0000000000000398>
- Lejarraga, H., Berardi, C., Ortale, S., Contreras, M.M., Sanjurjo, A., Lejarraga, C., Martínez Cáceres, M.J., eta Rodríguez, L. (2011). Crecimiento, desarrollo, integración social y prácticas de crianza en niños que viven con sus madres en prisión. *Archivos Argentinos de Pediatría*, 109(6), 485-491. <https://doi.org/10.5546/aap.2011.485>
- Lyons-Ruth, K., eta Jacobvitz, D. (2016). Attachment Disorganization from Infancy to Adulthood. Neurobiological Correlates, Parenting Contexts, and Pathways to Disorder. In J. Cassidy eta P.R. Shaver (argtz.), *Handbook of attachment: Theory, research, and clinical applications* (667-695. or.). Guilford Press.
- Makariev, D.W., eta Shaver, P.R. (2010). Attachment, parental incarceration and possibilities for intervention: An overview. *Attachment and Human Development*, 12(4), 311-331. <https://doi.org/10.1080/14751790903416939>
- Mata, J. (2018). *Madres e hijos en los centros penitenciarios. La escuela a los menores* (Grado Amaierako Lana, Universidad de Zaragoza). Facultad de Ciencias Humanas y de la Educación, Campus de Huesca, Universidad de Zaragoza. ZAGUAN Repositorio Institucional de Documentos. <https://zaguan.unizar.es/record/77520>

- Mulligan, C. (2019). Staying together: Mothers and babies in prison. *British Journal of Midwifery*, 27(7), 436-441. <https://doi.org/10.12968/bjom.2019.27.7.436>
- Napal, J. (2024ko irailak 5). La apertura de la cárcel de Zubieta se retrasa. *Noticias de Gipuzkoa*. <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/sociedad/2024/09/05/apertura-carcel-zubieta-retrasa-semana-8649127.html>
- Poehlmann, J. (2005). Representations of attachment relationships in children of incarcerated mothers. *Child Development*, 76(3), 679-696. <https://doi.org/10.1111/j.1467-8624.2005.00871.x>
- Powell, C., Marzano, L., eta Ciclitira, K. (2017). Mother-infant separations in prison. A systematic attachment-focused policy review. *Journal of Forensic Psychiatry and Psychology*, 28(2), 274-289. <https://doi.org/10.1080/14789949.2016.1204465>
- Secretaria General de Instituciones Penitenciarias. (2010). *Informe General 2010*. Ministerio del Interior - Secretaría General Técnica.
- Secretaria General de Instituciones Penitenciarias. (2020). *Informe General 2020*. Ministerio del Interior - Secretaría General Técnica.
- Secretaria General de Instituciones Penitenciarias. (2021). *Informe General 2021*. Ministerio del Interior - Secretaría General Técnica.
- Secretaria General de Instituciones Penitenciarias. (2022). *Informe General 2022*. Ministerio del Interior - Secretaría General Técnica.
- Torrado, M.R. (2016). *Kartzela genero-erakunde bezala: genero bereizkeriak, erresistentzia-praktikak eta agentzia Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean* (Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea). Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea. ADDI Artxibo Digitala Ikerketa eta Irakaskuntza. <http://hdl.handle.net/10810/21849>
- Zuil, M., eta Libório, B. (2016ko abuztuak 21). Niños en prisión: una condena invisible. *El Mundo*, 4-7. <https://www.elmundo.es/sociedad/2016/08/21/57b327a8e5fdae5328b45d4.html>

